



[...] **Z**inpeko Itzultzaileaz ematen duzun definizio aski “berdulgarria” pittin bat tortizeroa ez ote den susmoak nago. Ez dut uste, hala ere, habilitazioa lortu dutenetako inor horrengatik korrika joango denik Eusko Jaurlaritzara, habilitazio-agiria bueltatzera, zera esanez: “Barkatu, baina ahaztu egin zitzaidan letra txikia irakurtzea”. Dena den, Zinpeko Itzultzaile batek Itzultzaile batek bezalaxe hanka sar dezakeela esan nahian bazabiltza... erabat ados. Eta baten erantzukizuna (zinpeko itzultzaile diharduenean) bestearena baino handiago delakoaz... horrekin ere ados; baina hori neurri batean baino ez da horrela, testuinguruaren arabera edo, Itzultzaileak ere erantzukizunak baititu, beti, zinpekoa izan ala ez (eta erantzukizun horiek ez dira nolana hikoak: liburugintza, ikus-entzunezkoak, kazetaritza, kulturgintza, e.a., e.a.). Dena den, nik kontu honetaz honako uste hau daukat: Filosofia eta Letrak ikasketak eginak izateak ez zaitu filosofo bihurtzen, Literatura Hispanikoa ikasi izanak gaztelarazko letra ederretako maisu bilakatzen ez zaituen bezala. Eta horrela, hamaika bat adibide jar genezake. Nolanahi ere, goi-ikasketak eginak izateak, soil-soilik eginak izateagatik, zer edo zer adierazten du (ez askoz gehiago, baina ezta askoz gutxiago ere). Eta Zinpeko Itzultzaileak gaitzeko kontuarekin ere beste horrenbeste gertatzen zaigu, nik uste. Habilitazio edo gaitze hori izateak ez du esan nahi munduko itzultzaile onena zarenik; bai, ordea, txarrena ez zarela... (edonori ematen al diote habilitazioa, ala?) Txantxak albo batera utzita, poz gaitzeen habilitazioa lortu izanaz harro dauden lankideez, zeren azken finean litekeena da gogor lan eginez hura irabazi izana. Habilitazioa inorentzat ez baita oparia izan; eta batez ere, espero dut inorentzat maldiziorik ez izatea!